



irura

AISIALDIRAKO
2023 **GiDA**

EKAINA JUNIO



EKAINA 23 JUNIO
"SAN JUAN SUA"



**EKAINA 15 JUNIO -
IRAILA 15 SEPTIEMBRE**
"IRURARRAK
MUNDUAN"

05 / astelehena *Lunes* **17:30**

Liburutegian *Biblioteca*

**BIDAIA LILURAGARRIA
IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA**

**RELATO MUSICALIZADO BIDAIA
LILURAGARRIA**

Ikuskizun honetan, Perlik eta Koxkolok bidaia liluragarri bat egitera eramango gaituzte. Musika eta dantzaren laguntzaz, toki zoragarriak eta lagun bitxiak aurkituko dituzte munduan zehar, eta ilargira ere

iritsiko dira. Aniztasunaren, berdintasunaren eta ekologiaren aldeko ipuin-musikatu dibertigarria, haurren irudimena pizteko eta familia-giroan ezin hobe pasatzeko.

En este espectáculo, Perli y Koxkolo nos llevarán a hacer un viaje fascinante. Con la ayuda de la música y el baile, encontrarán lugares maravillosos y extraños amigos por el mundo, y también llegarán a la luna. Divertida musicalización de cuentos a favor de la diversidad, la igualdad y la ecología para despertar la imaginación de las niñas y niños y pasarlo de maravilla en un entorno familiar.

· 7 urte bitarteko haurrei zuzendua

Dirigido a niñas y niños de hasta 7 años



07 / asteazkena *Miércoles* **11:00** San Migel

plazatik abiatuta *Desde la plaza San Migel*

**IRURAKO ADINEKOAK SASOIKO EGOTEKO
EGITASMOA**

**PROYECTO PARA MANTENER LA FORMA FISICA DE
LAS PERSONAS MAYORES DE IRURA**

65 urtetik gorako pertsonen ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da. Bi modutara har daiteke parte, erabiltzaile bezala edo mugikortasun arazoak dituztenei laguntzeko boluntario aurkeztuz.

Parte hartzeko: **943 691 333** zenbakira deitu edo **gizarte@irura.eus** helbidera idatzi.

*Las personas mayores de 65 años realizan un recorrido para impulsar el ejercicio físico y fomentar las relaciones entre ellos. El recorrido termina con un hamaiketako. Se puede participar de dos maneras, bien como usuario o presentándose como voluntario para acompañar a personas con problemas de movilidad. Para participar: llamar al **943 691 333** o escribir a **gizarte@irura.eus**.*

· +65 urte Años

Oharra: laguntzaileak gazteagoak ere izan daitezke.

Nota: los acompañantes pueden ser más jóvenes.

10 / larunbata *Sábado* **15:30** Trinketean *Trinquete*

IV. AMETSA PILOTA XARE TXAPELKETAREN FINALERDIAK

SEMIFINALES DEL IV.TORNEO AMETSA PILOTA DE XARE

Xare eskolako ikasleen arteko txapelketa.

Campeonato entre alumnos de la escuela de xare.

(Ametza Pilota elkarteak antolatuta *Organizado por Ametsa Pilota Elkartea*)



16 / ostirala *Viernes*

22:00 Zizurkilgo goiko frontoian *En el frontón de Zizurkil de arriba*

LOATZO MUSIKA ESKOLAKO 20. URTEURRENA OSPATZEKO FESTA

FIESTA CONMEMORATIVA DEL 20 ANIVERSARIO DE LA ESCUELA DE MUSICA LOATZO



20 urte betetzen dira, Anoeta, Ibarra, Zizurkil, Villabona, Altzo, Alegia, Irura eta Adunako udalak, musika eskola publiko baten eskaintzan aurrerapausoak ematen ari direla, ikasle eta irakasle talde batek proiektu honetan sinesten dutela, herri txikietako biztanleek musika ikasi, tresnak jo, gozatu eta musikari profesionalak izateko ateak zabalik dituztela. Urte guzti hauetan, artista profesional asko sortu da Loatzotik: musikariak, antzerkilariak, dantzariak, margolariak... diziplina ezberdinetara hurbilduaz, munduak beste kolore batzuk badituela erakusten saiatzen direnak. Eskerrik asko, hasieratik proiektu honetan sinetsi eta

amesten jarraitzen duzuen guztioi; udal arduradun, udal langile, guraso, ikasle, irakasle... den denei, mila esker!!! 20 urte hauek ospatzeko, antolatu dugun jaialdi berezi honetan zuek denak egotea nahiko genuke.

Se cumplen ya 20 años desde que los ayuntamientos de Anoeta, Ibarra, Zizurkil, Villabona, Altzo, Alegia, Irura y Aduna, ofrecen los servicios de una escuela pública de música, con un grupo de alumnas y profesores que creen en este proyecto, con las puertas abiertas para que las personas de los pueblos pequeños aprendan música, toquen instrumentos, disfruten y sean músicos profesionales.

En todos estos años, de la escuela Loatzo han surgido muchas artistas profesionales: músicas, dramaturgas, bailarines, pintores... que, acercándose a diferentes disciplinas, intentan demostrar que el mundo tiene otros colores.

Gracias a todas y todos los que, desde el principio, creéis y seguís soñando en este proyecto; gracias a todas y todos los responsables municipales, trabajadores municipales, padres y madres, alumnos y profesoras!

Nos gustaría que a este festival tan especial que hemos organizado para celebrar estos 20 años acudierais todas y todos.

- Euskaraz Euskera
- Publiko guztia Todo los públicos

(Loatzo Musika Eskolak antolatuta *Organizado por Loatzo Musika Eskola*)



17 / larunbata *Sábado* **16:30** Trinketean *Trinquete*
IV. AMETSA PILOTA XARE TXAPELKETAREN FINALAK

FINALES DEL IV.TORNEO AMETSA PILOTA DE XARE

Xare eskolako ikasleen arteko txapelketa.

Campeonato entre alumnos de la escuela de Xare.

(Ametza Pilota elkarteak antolatuta *Organizado por Ametsa Pilota Elkarte*)

21 / asteazkena *Miércoles* **18:30** Herri eskolako aretoan *Sala de la herri-eskola*

HITZALDIA: 'HIZKUNTZA ESKUBIDEAK, DENON AUZIA'

CONFERENCIA: 'LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS, UNA CUESTIÓN DE TODOS'

Gure aurreiritziez hasi eta euskararen lege eta kontsumitzaileen legeak landuko dira. Horrekin batera, hizkuntza eskubideak zer diren landuko dira eta adibide praktikoak ere jarriko dira zerk-nola eragiten digun lantzeko.

Comenzando por nuestros prejuicios, se trabajarán las leyes del euskera y las leyes de los consumidores. Junto a ello, se trabajará sobre lo que son los derechos lingüísticos y se pondrán ejemplos prácticos de que y cómo nos afecta.

- Euskaraz *Euskera*
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Galtzaundi eta Euskararen Behatokiak antolatuta
Organizado por Galtzaundi y el observatorio del euskera)



22 / osteguna *Jueves* **18:00** Liburutegian *Biblioteca*

IRAKURLE TALDEA (SAIO BEREZIA)

GRUPO DE LECTORES (SESIÓN ESPECIAL)

Taldekoa izan zein ez izan, etorri gurera, liburuak aitzakiatzat hartuta elkarrizketarako bideak zabaltzera! Hilabete honetako irakurgaia: "Azken etxea", Arantxa Urretabizkaiarena.

Tanto si pertenecéis al grupo como si no, ¡venid y a abramos cauces de diálogo con los libros como excusa!
La lectura de este mes: «Azken etxea», de Arantxa Urretabizkaia.

- Euskaraz *Euskera*
- + 16 urte *Años*

(Irakurle taldeak antolatuta
Organizado por el grupo de lectores)





23 / ostirala *Viernes* **20:00** San Migel plazan
Plaza San Miguel

SAN JUAN BEZPERA VÍSPERA DE SAN JUAN

Barrikotea, sua piztea, eta Onintza abesbatza.

Barricote, Encender la hoguera, y actuación del coro Onintza.

· Publiko guztia *Todo los públicos*

Oharra: Barrikoterako mahaiak eta sagardoa Udalak jarriko ditu.

Nota: las mesas de barrikote y la sidra las pondrá el Ayuntamiento.

26 / astelehena *Lunes* **16:00**

Herri eskolako aretoan *Sala de la herri-eskola*

ODOL EMATEAK

DONACIONES DE SANGRE

Lagundu biziari, eman odola! 26 goizean
943007884 telefonora deitu eta hitzordua
eskatu beharko da.

*¡Ayuda a la vida, dale sangre! El 26 por la mañana
habrá que llamar al 943007884 y pedir cita previa.*

(Irurako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta

Donantes de Sangre de Irura)



2024KO EGUTEGIRAKO ARGAZKI-LEHIAKETA

CONCURSO DE FOTOGRAFÍA PARA EL CALENDARIO 2024

2024ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako gaia 'IRURA, FIESTA ETA KULTURA' izango da. Urtero bezala, adin guztietako herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Aukeratutako argazki-egileek 30€ko erosketa-bonoa irabaziko dute. Lehiaketaren oinarriak **www.irura.eus** webgunean aurkituko dituzue. **Animatu!** *El tema Para el concurso fotográfico del calendario de 2024 será IRURA, FIESTA Y CULTURA. Como todos los años, podrán participar en el concurso vecinos y vecinas de todas las edades. Los autores de las fotos seleccionadas ganarán un bono de compra de 30€. Las bases del concurso las encontraréis en la web **www.irura.eus** ¡Anímaos!*



Ekainak 15 junio - Irailak 15 septiembre

“IRURARRAK MUNDUAN” UDAKO POSTAL LEHIAKETA “IRURARRAS POR EL MUNDO” CONCURSO DE POSTALES DE VERANO

Urrutiko bazterrak nahiz gertukoak, edozein dela ere zure helmuga, euskara bidelagun ona izango duzu.

Zauden tokian zaudela, postaltxo bat hartu eta zer moduz zabiltzan kontatuz bidali guri: **euskaraz, noski!**

Tanto los rincones maslejanos como los de cerca de casa,, sea cual sea tu destino, el euskara será n buen compañero de viaje. Estés donde estés, coge un postalito y nos lo envías contando cómo andas: ¡en euskera, claro!

Sariak Premios:

- **14 urte azpikoentzat:** Sendaviva Nafarroako Natur Parkerako bi sarrera. **Para menores de 14 años:** Dos entradas al Parque Natural de Navarra Sendaviva.
 - **Gainerakoentzat:** nekazalturismo batean gaua eta gosaria bi lagunentzat. **Para el resto:** Noche en un agroturismo y desayuno para dos personas.
- Zozketa bidez aukeratuko ditugu postal-irabazleak!
Zozketa San Migel eguneko hamaiketakoan egingo da.
*¡Seleccionaremos por sorteo las postales ganadoras!
El sorteo se realizará en el hamaiketako del día de San Miguel.*

BALDINTZAK REQUISITOS:

- Euskaraz zerbait kontatzea. *Contar algo en euskera.*
- Bidali duzun lekuko zigilua izatea. Edozein lekutakoa, Irurakoa izan ezik. *Tener el sello del lugar que has enviado. De cualquier sitio menos de Irura.*
- Ekainaren 15etik irailaren 15era bitarteko zigilua izatea. *Tener el sello del 15 de junio al 15 de septiembre.*
- Pertsona bakoitzeko postal bat zenbatuko da. *Se contabilizará una postal por persona.*
- Bidaltzailearen datu hauek jarri beharko dira: izen-abizenak, adina eta harremanetarako bidea (telefonoa edo e-maila). *Se indicarán los siguientes datos del remitente: nombre y apellidos, edad y medio de contacto (teléfono o e-mail).*
- Postalak bidaltzeko helbidea *Dirección de envío de postales:*

**IRURA BIZI ELKARTEA • KULTURA BULEGOA
GAZTE ETA KULTURUNEA • PELLO ARRESE KALEA, 1
20271 IRURA Gipuzkoa**

(Irura Bizi elkarteak antolatuta *Organizado por Irura Bizi*)



HERRIKO JAIETAN INDARKERIA MATXISTARI AURRE HARTZEKO PROTOKOLOA

PROTOCOLO DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA MACHISTA EN LAS FIESTAS PATRONALES

Irurako Berdintasun Arlotik herriko jaietan indarkeria matxistari aurre hartzeko protokoloa osatze lanetan hasi gara. Horretarako partaidetza prozesua jarri dugu abian herriko eragile desberdinekin. Xede nagusia, jaien testuinguruan eman daitezken indarkeria matxista kasuen aurrean prebentzioa landu, arreta antolatu eta erantzun publiko irmoa bermatzea da. Partaidetza prozesu honen baitan hainbat lan saio burutuko ditugu. Indarkeria matxistaren edozein forma edo adierazpen deuseztea herritar ororen ardura dela jakinik, Irurako Berdintasun Arlotik lan saio hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Informazio gehiago: **berdintasuna@irura.eus**

Desde el Área de Igualdad de Irura hemos comenzado a trabajar en la elaboración del protocolo de prevención de la violencia machista en las fiestas patronales. Para ello, hemos puesto en marcha un proceso participativo con diferentes agentes del pueblo. Los objetivos principales, son trabajar la prevención, organizar la atención y garantizar una respuesta pública decidida ante los casos de violencia machista que se puedan dar en el contexto festivo. Dentro de este proceso participativo, llevaremos a cabo varias sesiones de trabajo. Conscientes de que la eliminación de cualquier forma o expresión de la violencia machista es responsabilidad de todos y todas, desde el Área de Igualdad de Irura os invitamos a participar en estas sesiones de trabajo.


Más información: **berdintasuna@irura.eus**

2023 AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN EMAITZAK

RESULTADOS DE LA VOTACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2023

2023ko aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek egindako baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak bozketa fasera pasa ondoren, hauexek izan dira emaitzak.

Beraz **“Argiztapen jasangarria Ibaigain pasealekuan”** jartzea izan da **proiektu bozkatuena**.



- Argiztapen jasangarria Ibaigain pasealekuan. 40 bozka
- Trinketeko gimnasioan toldoa jartzea kantzarekin banatuz. 5 bozka
- Bulder (eskalada) bat kulturuneko eraikinaren atzekaldean. 17 bozka
- Kaskailu haur-parkea berritzea eta hobetzea. 21 bozka
- Komun publikoa Loatzo plazan. 35 bozka
- Gimnasioko leihoetan estoreak jartzea. 11 bozka

Después de pasar la fase de votación de las propuestas emitidas por los vecinos y vecinas, de los presupuestos participativos que cumplen con todos los requisitos, estos son los resultados:

Iluminación sostenible en el paseo Ibaigain: 40 votos

Colocación de toldo en el gimnasio del trinquete separándolo con la cancha: 5 votos

Bulder (escalada) detrás del edificio del centro cultural: 17 votos

Renovación y mejora del parque infantil Kaskailu: 21 votos

Baño público en la plaza Loatzo: 35 votos

Instalación de estores en las ventanas del gimnasio: 11 votos

EKAINAK 28 JUNIO, LGTBIQ+ PERTSONEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

DÍA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS LGTBIQ+

LGBT Harrotasunaren nazioarteko eguna, 1970 urtetik ekainaren 28an ospatzen da mundu osoan zehar. 1969ko ekainaren 28 goizaldean Stonewallen (New York), pertsona homosexualen askatasuna 'ahalbidetzen' zuen pub bakarrenetako batean poliziak sorrarazi zuen istilua eta ondorengo egunetan kale hartan egon ziren manifestazioek izandako oihartzunaren ondorioz ospatzen da. Egun honen helburuak genero eta **sexu aniztasuna** ezagutzera ematea, kolektiboaren **eskubideak** aitortzea eta jasaten duten diskriminazioa salatzea dira, **harrotasun** sentimendua ere azalaraziz. "Harrotasuna" bakoitzak bere buruarengan duen begirunea eta amodioa da, eta ondorioz errespetuz eta duintasunez tratatua izateko duen eskubidea, joera sexualengatik erasorik jasan gabe.

*El Día Internacional del Orgullo LGBT se celebra desde 1970, el 28 de junio en todo el mundo. Se celebra, por los incidentes generados por la presencia policial en la madrugada del 28 de junio de 1969 en Stonewall (Nueva York), uno de los pocos pubs que permitía la libertad de las personas homosexuales y la repercusión de las manifestaciones de los días posteriores en la calle. Los objetivos de este día, son dar a conocer la **diversidad de género** y sexo, reconocer **los derechos** del colectivo y denunciar la discriminación que sufren, haciendo aflorar también un sentimiento de **orgullo**. El orgullo es el respeto y el amor que cada uno tiene por sí mismo y, en consecuencia, su derecho a ser tratado con respeto y dignidad, sin ser agredido por sus inclinaciones sexuales.*



NOTA

Toda la información en castellano en
www.irura.eus o en la **oficina de cultura**



euskara



Irurako
udala



kultur
mahaia



castellano